

ENTITATEA

Lurralde esparrua

Zerbitzu bakoitza emateko esparrua honako modu honetan zehazten da:

- Uraren Ziklo Integrala (40 udalerrri). Nafarroako Gobernuak Nafarroa Hornitzeko Plan Zuzentzailean emandako lurralde mugapeak zehazten du zerbitzu hau emateko esparrua.
- Hiri hondakinak (48 udalerrri). Nafarroako Hiri Hondakinen Plan Zuzentzaileak zehazten du zerbitzu hau emateko esparrua.
- Hiri garraioa (17 udalerrri). Iruñerrian bidaiariak garraiatzeko zerbitzu erregularra arautzen duen foru legeak, 8/1998 Foru Legeak, ekainaren 1ekoak, zehazten du horren esparrua. 2007an zerbitzu horretan parte hartu duten udalerrriak 17 izan diren.
- Taxi zerbitzua (19 udalerrri). Taxiei buruzko foru legeak, 9/2005 Foru Legeak, uztailaren 6koak, zehazten du horren esparrua. 2007an zerbitzu horretan parte hartu duten udalerrriak 19 izan dira.
- Ibai parkea. 2000. urtean NILSA eta Nafarroako Gobernuarekin partzuergoa osatu zuen 8 udalerririk osatzen dute esparrua. 2007an partzuergo hori deuseztatu egin da, eta Iruñerriko Mankomunitateak hartu du kudeatzeko ardura.

